

# GARAPENERAKO LANKIDETZA



Artotem

## EGOERA

Garapen jasagarria, partekatua lortu nahi dugu, lan duina sustatzen duen garapena, giza eskubideen, demokraziaren eta gobernu onaren alde egiten duena, egiturazko pobrezia desagerrarazita. Azken batean, justizia eta ekitate handiagoko egoerara eramango gaituen eraldaketaren bidean aurrera egin nahi dugu; baina bi alderdi, bereziki, aipatu nahiko genituzke bide horretan: alde batetik, munduko hizkuntza-aniztasuna eta kultura-aniztasuna sustatzeko eta horri eusteko premia, aberastasun

globalaren elementua den aldetik, eta bestetik, emakumeek betetzen duten eginkizuna, garapen-sustatzaileak diren aldetik.

Ildo beretik, herriek euren natura-baliabideak eta kultura-jakintza kontrolatzeko duten eskubidea errespetatu egin behar da, baita subiranotasunak eta libre erabakitze aukera ere. Horretaz gain, emakumeak ez dira tresnatzat hartu behar, helburu ekonomikoak direla-eta.

## HELBURUAK

Garapenaren bidez mundu zuzenagoa eta jasagarriagoa lortzen laguntzeko tresnarik garrantzitsuena koherentzia da; garapenerako politikei ikuspegi koherente batetik begiratzea, alegia. Ikuspegi koherente batetik begiratu gero, erreferentziako esparru bat eta irizpideak izango ditugu eta, hartara, hainbat arlotako politikek –merkataritzaren, energiaren edo zergaren arloko politikek, esaterako– beste herrialde batzuetan eragiten dituzten ondorio negatiboak saihestu ditzakegu, betiere herritarrek eskubideak baliatu ahal izateko baldintzak sortzea eragotzi edo oztopoatu gabe. Gainera, Euskadin lortu nahi dugun garapen motarekin bat datozen politika publikoak diseinatzeko eta erabakiak hartzeko irizpideak ere eskainiko dizkigu.

Nazioarteko Lankidetzaz ari garelarik, gizarte-mugimenduen egitekoa nabarmendu behar dugu, emantzipazio-logiketan funtsezko subjektu diren aldetik; gizarte-mugimenduek demokrazia partizipatiboaren formula berriak taxutzen eta defendatzen dituzte ekitatean, horizontaltasunean eta desberdinen antolamenduan oinarrituta, eta gaur egun, giza baliabideak, baliabide materialak eta baliabide politikoak euren aldaketa-agenden inguruan mobilizatzeko gaitasun handia dute gizarte-mugimenduek, bakoitzak bere heinean. Hortaz, herritartasunaren eta demokraziaren bidean aurrera egin nahi badugu, gizarte-mugimenduak indartu beharko ditugu, ezinbestean.

## LEHENTASUNEZKO HELBURUAK

### **A** ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO GARAPEN-LANKIDETZARAKO POLITIKAK

Garapenerako politiken koherentzia bultzatuta gobernuaren ekintza guztietan, pobrezia eta desberdintasunen aurkako borrokari ikuspegi kausal batetik ekiteko ingurumenarentzat jasangarria den moduan.

Garapenaren bidez mundu zuzenagoa eta jasangarriagoa lortzen laguntzeko tresnarik garrantzitsuena koherentzia da; garapenerako politikei ikuspegi koherente batetik begiratzea, alegia. Ikuspegi koherente batetik begiratu gero, erreferentziako esparru bat eta irizpideak izango ditugu eta, hartara, hainbat arlotako politikek –merkataritzaren, energiaren edo zergaren arloko politikek, esaterako– beste herrialde batzuetan eragiten dituzten ondorio negatiboak saihestu ditzakegu, betiere herritarrek eskubideak baliatu ahal izateko baldintzak sortzea eragotzi edo oztopoatu gabe. Gainera, Euskadin lortu nahi dugun garapen motarekin bat datozen politika publikoak diseinatzeko eta erabakiak hartzeko irizpideak ere eskainiko dizkigu.

14/2007 Legea (Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarena) abiaraztea.

Eusko Jaurlaritzak duen lidergoa egonkortzea, kudeaketa zuzena ahalbideratuko duen Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari zuzendutako baliabide oertsonal, ekonomiko eta teknikoak ezarriz.

Euskal lankidetzaren deszentralizatuaren plan estrategikoa bultzatzea, eta kronograma eta irizpide administratiboak bateratzea.

Administrazio bakoitzaren autonomian eta ikuspegi politikoan oinarrituta, udalerrien, Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko ahaleginak antolatzea.

Lege-proposamena, administrazio publikoen kontratuarentako baldintza-agirietan lan-eskubideen, genero-berdintasunaren, giza eskubideen eta ingurumen-eskubideen arloetako baldintzak txertatzeko.

Erosketa publiko etikoaren aldeko lege berriak ezartzea, banka etikoari, energia-kontratuei, materiala erosteari, software libreko programa informatikoei, jasangarritasun ekologikoari eta abarri dagokienez.

Jarraipen Batzordea sortzea Eusko Jaurlaritzaren sailetan (Ingurumena, Hezkuntza, Herri Lanak, Etxebizitza, Ogasuna...) legegintzako neurriak eta neurri arautzaileak abiaraziko direla bermatzeko.

Protokolo bat aktibatzea Eusko Jaurlaritzaren ordezkarietarako, sinatu behar diren kontratuetan baldintza horiek betetzen direla egiaztatuz; ordezkari horietan Giza Eskubideen Zuzendaritzak beti izango du ordezkariaren bat.

## B GIZARTE-ERAGILE BERRIAK INTERNAZIONALISMO IZAERAREKIN GARAPEN-LANKIDETZAN

Politikarien joan-etorriak gorabehera, nazioarteko lankidetzaz-politika politika publiko egonkor eta finkatuz hartuta, gizarte zibil antolatua erakundeekin partekatuta betearazten eta indartzen dela, espezifikotasunean eta balio erantsian oinarrituta .

Lankidetzaz-agenteeekin elkarrizketa politikoa izateko ahalmena eta borondatea duten egitura politikoa sortzea, baita kontsultak egiteko eta erabakiak hartzeko guneak ere.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren funtzionamendurako barne-araudia sortzea. Lankidetzaz-agenteeekin elkarrizketa politikoa izateko ahalmena eta borondatea duten egitura politikoa garatzea, baita kontsultak egiteko eta erabakiak hartzeko guneak ere.

Nazioarteko elkartasunean oinarritutako lankidetzaz-logika emantzipatzaileak aktibatzea. Ipar-Hego lankidetzaz Tokiko-Global lankidetzaz bihurtzea.

Estatu gabeko herriekiko lankidetzaz areagotzea, giza eskubideen nazioarteko esparruaren onarpen integrala lortu nahi duten nazioekin aliantza estrategikoa sortzeko asmoz.

Lankidetzaz-politikan genero-ikuspegia txertatuta duten erakundeekin lan egiteari lehentasuna ematea.

## C AURREKONTU-KONPROMISOA: GUZTIZKO AURREKONTU BATERATUAREN % 0,7.

Garapenerako lankidetzaz kalitate-irizpideak txertatuta, eta parte-hartzearen, gardentasunaren eta kontuak ematearen alderdiak indartuta lankidetzazko politika publikoan.

Eusko Jaurlaritzaren garapen-lankidetzazarako funts publikoen % 0,7a finkatzea, gorantz berrikusita guztizko aurrekontuan, herritartasun globalaren eta herrien arteko elkartasunaren printzipioan oinarrituta.

Herritar kritiko antolatua sortzea (ikerketa, eragin politikoa, sentsibilizazioa, emantzipazio-hezkuntza, antolaketa) zuzenean bideratzen den lankidetzazaren guztizko ehunekoa modu iraunkorrean handitzea.

Lankidetzaz-tresnei buruzko eztabaida sustatzea agenteekin, zenbait kasutan oso burokratizatuta egoten baitira.

Zuzeneko lankidetzazarentzat gehieneko bat finkatzea eta zuzeneko lankidetzaz hori plan estrategikoen barruan garatzea; erakundeek hitz egiteko aukera izango dute plan estrategiko horietan.

Emakumeak ahaldundutzea helburu duten proiektuei lehentasuna ematea.

Irabazi-asmoa duten erakundeek –zuzenean edo erakunde horienak diren fundazioen bitartez– kudeatzen dituzten proiektuak ez finantzatzea.

Gardentasunaren eta kontuak ematearen ildoari jarraikiz, urte bakoitzeko lehen seihilekoan Garapenerako Lankidetzazaren Euskal Agentziak egindako jardueren memoria argitaratzea; memoria horretan, burututako ekintzen laburpena, zer emaitza lortu diren eta aurrekontu-likidazioa aurreztuko dira.